

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

138n. Zenbakia Otsaila (Zezeilla)

1990



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



URKIOLA:

- SANTUTEGIA
- IZADIA
- ALKARTZE-LEKUA
- MISIÑOI-GIROA

EREDUAK

LETE ETA LANDA'TAR ISABEL, JAUNGOIKO-MIRABEA DAN KARIDADEKO MERTZEDARIA

Bere bizitza, oroimen eta deuntasun-aomenetzaz

Ikerketa-Auziaren Amaiera

1989'go Abenduaren 21'an, Urkiri'tar Timota Aba, CMF, Eskale-ordezko lez agertuz, Gabon-jaien urbiltasunari ta eleizarentzako ekintza garrantzitsuari esker, giro alaitu baten barruan, Donosti'ko Gotzain Jaun Agurgarri Setien eta Alberro'tar Jose Maria buru zala, Lete eta Landa'tar Isabel, Jaungoiko-Mirabea dan Karidadezko Mertzedariaren Ikerketa-Auziari Amaiera emon jakon.

Karidadeko Mertzedari Lekaima asko, euren Nagusi Orokor, Ester Gomez Aizta agurgarriagaz batera, aurkeztu ziran, eta baita Jaungoiko-Mirabearen sendi bitakoak bere .

Ikerketa-Auzi au, 1972'an asiriko gertakuntza luze baten ostean, 1986'go ekainillaren 11'an, zabaldu zan. Ikerketa onek ba, iru urte Verdi baiño geitxuago iraun dau.

Gaurko munduarentzat esanguratsuen eta aup-egilleen mezu ozenak dira gaiñezka eukazan bere alaitasuna ta ondasuna.



Isabel Lekaimea!

*Lortu egiguzu jaungoikoa-
ren **deiar** biotz zabalaz erantzutea
eta **gure** inguruan **zuk agertu zen-
duan gogozko poza** zabaltzea.*



ISABEL LETE LANDA

1913/1941

Karitateko Mertzedaria

«Nere leiotik egan ikusten ditudan enarak bezala, igaro nai dut gelditzen zaidan bizia; lurra ikutu gabe, goitik egan egin nai dut».

Isabel-ek, bere gaixotasunean

*Egiguzu, Isabel, Jainkoa ta la-
gun urkoa maitatzea, zuk maitatu
zenituen bezala.*

LATERRI-AUKEREA

S

Aspaldion asko entzuten dogu Euskalerriarren "autodeterminaziñoa", baiña erderazko berba onek ez dau ondo agertzen bere adierazpena. "Autodeterminaziñoa" milla gauzetarako izan leiteke, eta berbeak ez diño zertarako dan. Askoz egokiagoa dala uste dot "Laterri-aukerea". Onek argi adierazten dau aberri bakoitxak, nai izan ezkerro, laterri izateko daukan aukerea edo eskubidea. Eskubide au argi-argi agertzen dan "Bakea Lurrean" Juan XXIII'aren idazkian eta argi dago baita Laterri-arteke giza-ezkubideen agirian. Baiña guri aberria izatea bera ukatu egiten dauskue, antza.

EGUNEKO ARAZOA

Dana dala, aspaldiko egunetan arazo onek bitzasun barria lortu dau, batez "perestroika"ren ondorenez eta Alemania biak alkartzeko dagozen gurarien ondoren.

Elburu orretara eltzeko lenengo oinkadea, oinkada egokia, Araudia izan zan. Asko lortu da araudiagaz eta geiago lortzeko bide egokia da oraindiño. Laterri-aukerea egin baiño lenago, erri-bizitza berotu bear dogu, Kanpotik etorriak bertokotu, eta orretan zeregin aundia dauka euskerea irakasteak, eta bertokoak zurtu.

* * *

SASOIA

Laterri-aukera on aberriak edozein sasoitán egin leike eta autarkien ondoren lez beste laterri bategaz alkartuta jarraitzea agertuko ba'litz be, ez da uste izan bear on betiko danik. Urte batzuk

igaro ondoren aukeratze barria egin al izango litzake. Gaur auteskunde on on egitea arriskugarri litzake. Ez da eldu oraindiño sasoiá.

Baiña noiz litzake sasoi egokia?

Erantzuna ez da erreza, baiña aurretiaz baldintza batzuk jarri leikez: Lenengo, Berlin'go ormea kendu daben antzera, mugea kendu bear litzake iparraldearen eta egoaldearen artetik eta urrengo Naparroa'ren arazoa bideratu. Eta gauza bi orreik bete ondoren, bear dan bestean jarraitu Euskalerrian bizi diranak euskalduntzen. Arlo onetan neurri egoki batera eltzen garanean izango da laterri-aukerearen auteskuntzea egiteko sasoi egokia.

Bear ba'da irakurleak esango dabe: Ori amets utsa da. Ori ez da iñoz lortuko.

Bai. Egia da. Eta gure erria erri izatea amets uts biurtu danean, egoera benetan negargarrian gagoz. Orregaitik ez dogu aiztu bear gure elburua zein dan eta noraiño eldu bear dogun.

Iñoz entzuten dogu, Europa batua lortu nai dan aldi onetan zelan eskatzen dogun laterri-aukera au. Erantzuna erreza da: Ez gagoz Europa batuaren aurka, batasuna egokiro egin ezkerro, baiña Europa'ra sartzeak ez dau esan gura zati bat Frantzia'gaz eta beste zati bati bat Egoaldeko laterriagaz bat eginda sartu bear garanik, gitxiago guztiok euskaldunak izanik, Naparroa aide batetik eta gu bestetik. Euskaldun guztiak laterri bakar baten edo laterri ondo alkartu baten garala, ederto sartuko gintzakez Europa batura, beste laterriakaz batera.

SASKI-NASKI: 10 URTE

Otsail edo zezeil onetan beteten dira amar urte SASKI-NASKI aldizkaria lenengoz agertu zala. Ori dala-ta gure zorionik be-roena opa dautsegu aldizkari orretan askota-riko lana egiten daben guztiai.

Ahets utsal zan. Aldi areitan iñok ez eban uste izango ainbeste urtetan iraungo ebanik, baiña ekin eta ekin illeak eta urtea joan egi-ten dira.

Ekin eta ekin esan dogu, eta ekin ori sarri-tan larria izaten da, ez ainbeste idazleen al-detik, arlo onetan beti izaten dalako jente la-guntzaillea, baiña bai diru-aldeetik, sarritan laguntzak urriak izaten diralako.

SASKI-NASKI'k be izan dauz olako era-gozenak, baiña ekiñak lortu dau eziña azpi-ratzea.

GAIK

Aldizkari onek aztertzen dauzan gaiak oso jakingarriak izaten, dira bai Euskalerr-koak eta bai laterri-artekoak. Edozein idaz-lan irakurten asi ezkeru, irakurteak berak emoten dau azkeneraiño jarraitzeko gogoia. Egokia da ba ain urria dan euskaldunen ira-kur-naia suspertzeko.

Eta bitarteetan, astuntasuna kentzeko ba-rregai batzuk sartzen dauz.

EUSKERA

Aldizkaria Gipuzkoa'n argitaratzen da eta idaz-lanik geienak gipuzkoeraz idatzita da-toz, zabaldu be geiena antxe zabaltzen da-

lako. Baiña ugari etorten dira bizkaieraz idatzitako lanak be. Gipuzkoera bera be oso errikoa ta ulerterreza da, Bizkai'ko euskerea apur bat landu dauanarentzat.

Orixe bai ba-dala batua lortzeko bidea, biak ezagutzea, bietan irakurtea eta, al ba'da, idaztea.

Saski-naski

43 UZTAILLA - IRAILLA 1989 150 peza

Oarra.....	1
Ume-kantak.....	<i>Lekuona</i> ^r ar Manuel 2
Ekain.....	<i>Arrinda</i> 'tar Anex 12
Isadora Duncan.....	<i>Manuel R. Copons</i> 22
Zugaitz jakintsuak.....	<i>Walter Ruppert</i> 28
Hong Kong, leen eta orain.....	<i>Nestor Lujan</i> 32
Papo gorria.....	<i>Jean Etchepare</i> 40
Bai ote dakizu?.....	<i>Gorospe</i> tar Mikel 46
Odola gorputzez aldatzea.....	<i>Olazar</i> tar Martin 49
Illeta gogoangarriak.....	<i>Oñañbia</i> tar Yon 55
jainkoa ren botikatik.....	<i>Bergaretxe</i> tar J. J. 66
Adiskideak nola egin.....	<i>Manzidor</i> tar Mikel 68
Munduratzera zoazen orri.....	<i>Ayerbe</i> 'tar Joxe 72
Zeure burua zaintzen.....	<i>Mediku</i> zarrak 73
Zortzi gizon gaizto.....	<i>Latiegi</i> tar Bixente 81

IRAKUR ETA ZABAL EZAZU

AURKEZKERA

Aldizkaria gure ZER baiño neurri labu-rargoetan datorrelako, oso egokia da aldean eroateko eta bideetan irakurteko, eta gaiñera aurkezkerak polita dauka, azaletan margo bi dauzala eta barruan irudiak naikoa ugari.

Gure irakurleak arpidetu bear litzakez, la-guntzeko ta giputzakaz alkartzeko, anaiak garan ezkeru.

OLAZAR'tar Martin

ERROMA'TIK GORBACHOB ETA JOAN PAULO II

"Eresia da nere bizirako eutsigarri bat; entzuten dedan bakoitzeko, otoitz egiteko gogoia sortzen zait eta Jainkoarengan urbil nauela nabaritzen det nere barnean." Franzisko Asis'tarraren itzak dirudite; baiña, Gorbachob'enak dira, naiz-eta aldi berezietan bere burua ateo bezala agertu.

Dana dala eta dena den, gauza ageria da Gorbachob batiatutako kristau dala eta badiela ama bat bere aide otoitz egiten diarduena errixka berean.

* * *

Joan Paulo II'arekin egon-berria da, 80 minutuz alkarrekin. Amaitzerakoan, Aitasantuarekin bakarka egon nai zuela adierazi zuan. Eta, orrela, 5 minutuz egon ziran biak bakarrik ixilleko autumutuetan.



Gorbachob eta Aitasantua alkarrekin 1989'ko Abenduaren 1'ean Vaticano'ko egoitzan.

Zer esan zioten alkarri? Zer zeukan Gorbachob'ek Aitasantuari bakarka esatekorik? Aitortu egin ote zan? Bere bizitzako pekatuen barkapena eskatu ote zion? Bataiatua izanik, Aitortzako sakramentua artzeko gai bazan. Alkarren arteko ixilleko eskutua.

Garai batean Stalin'eri Erroma'ko Aitasantua aitau ziotenean, "Zenbat soldatu eta gudaroste ditu?" galdetu omen zuan bere burua arro jasorik... Nor naizela usten dezute orrelako txiro-eskale batekin ni autuetan asteko?

Egun auetan aldaketa ederra sortu da Historiak daraman zuzenbidean: Stalin-en ondorengoak Aitasantuari Erroma'n bisita egin dio eta gainera, Errusia ikustera joateko konbite egin... Eta on asko ez dala, begira zer esan dion: —"Badakigu erlijio-arazoetan munduan Agintaritzarik aundiena duan gizonarekin ari gerala eta, orrezaz gain, eslabiarra dala."

Polako izatea bota izan oi diote Joan Paulo'ri aurpegira, okerra ba'litz bezala. Bear ba'da, Gorbachob'en itzetan, orrexek laguntzen dio Errusia'rekiko arreman bereizi auetan.

* * *

Errusia eta Komunismoaren ordua jotzen ari ote da Europa'n? Ikustaldi onen ondoren, URSS eta Vaticano arteko diplomazi-arazoak asiko dira bereala.

Vaticano'ko Laterria ezereztu bear dala esaten duten katolikoak badira gaur egun. Laterritxo bat edukitzeak, ordea, Aitasantuari eskuak libre usten dizkio onelako lanetarako; beste baten mendean egoteak, lan auetarako, eragozpenak besterik ez lioke sortuko.

* * *

Billera bukatu zutenean, onela zion Joan Paulo II'garrenak:

— "Itxaropenez betetako azia izan zaigu alkarrizketa au".

Ez ziran makalagoak Gorbachob'en ateraldiak:

GIZARTEA

— "Erljio desberdiñetako gizakumeak bizi dira gure Errian: kristauak, musulmanak, judutarrak, budistak eta abar. Oiek danak beuroen erlijioak bizi izateko eskubideak badituzte eta laister, legez, emango diegu orretarako bear duten askatasuna."

72 urteetan zear egon dira URSS eta Eliza iñungo arremarik gabe eta 1989'ko Abenduaren 1'ean eten zan aldi ori.

Datorren udaberrian joango omen da Joan Paulo Errusia'ra bere nai biziena betetzera. Gorbachob'ek, berriz, bete du Berea: "naia, billatua eta eskatua" izan da bisita.

Gorbachob'ek bere "perestroika" demokrazi-asmoa aurrera eramaten, eragozpenak eta ostopoak billatzen ditu bere errian, espiritu zaar eta txarrekoen artean eta ezin da ariñago ibilli... Oietxek Aitasantuak jakitea, zan bere gogo-naia.

Elmuga lortu du Erroma'n eta une au izango omen da, berak dionez:

— "Istoriaren aldi barri baten asiera."

Aitasantuak errusiarren eran asi omen zuan bere mintzaldia. "Azkenean, orratio, alkartu gera eta alkarrekin mintzatzerik izan degu." Erantzun zion Gorbachob'ek; Joan

Paulok zera esan zionean: "Aitasantuaren etxea erri guztien ordezkarien etxea da; orregaitik da emen onartua Gorbachob jauna."

Luzaroan egon ziran alkarri eskuak emanda. "Gure arteko arremanetan auxe da unerik garrantzitsuena" zion Joan Paulo'k. Eta, Gorbachob'ek erantzun: "Atsegin zait oso alkarrengandik ain gertu egotea, ekintza bereziak alkarrekin aurrera eramán aal izateko bai URSS'ek eta bai Aulki Santuak."



Aitasuntua Gorbachob'en Reixa emazteari errosario eder bat eta beste laguntzallei Vaticano'ko domiñ-aundiak ematen.

— "Bai, Aulki Santuak interes aundienekin ikusten ditu zuen eraberritze onetan darabilkizuen ekiñaldiak eta errien eta personen eskubideen aldeko zuen lanak. Ekintza oien garaipenaren zai gaude." Erantzun zion Joan Paulo'k.

Abenduaren 7'rako, seigarren egunerako, eldu ziran Erroma'ra bizitza onen ondoren lenengo berri onak: "Erriaren referendum baten bidez ezagutuak izango dira Ukraina'ko katolikoak." Ala zion Novosti ajenzia errusiarrek.

ANES ARRINDA



BIZITZA BERTARA

Biziaz noa bai, neurekiko bizitz bertara,
biziak berak noíz bait jarritako lekura;
gero, or gaituzu, itzal naiz eguzkitara
jasanik bideberako negar-itusura.

Dabilgun bidean jausí egín garala?
Jakín egízu bizía besterík ez dala,
egotea biziak jarritako lekuan;
olatuz gaínberaturiko itxasuan.

Ugari dira aizete ta odei íllunak,
gure egunen zoripeko igaropenez
gainditu bearreko beraldí, gogaí ítunak.

Aurre egin bearra daukagu itun orori,
íñolako makurkeri ta gizatasunez
biotza edermenduz, bizi-alde, abeslari.

1990 URTE ZORIONTSUA

Urte bat ba-doa baí, ba-doa
ta, beste bat dago sortukeran
bizíratu gurarik bere soa.
Bear bada zorioneko urte
oneskor bat etorriko yaku...
Orí, egia izango ete?
Baña, an, guk, guk zer egin geinke
itxaron besterik, uste onez
zer izangoren bildurrik gabe
—gaitz okerrak edo atsegiñak-
danetik gerta ez ete leike?
Baña, an, guk, guk zer egín geinke?

Igaro ízandako urtea
ta, igaroa igaro danez,
ezebezaren zuloan dago
aldenduta beti -betirako;
ta, orain beste ekitaldí barri
baten asíera bat datorkigu
bide ezaugetik ibilteko.

Beraz, Iainkoak lagun bekígu,
Aren Esku ta laguntzari
esker, bizía garaipetzeko
danok bat, eutsí al-izateko
ain biotzeko dogun Euzkadi'ri!!

NEUREA DA BIDEA (1989)

Ez, ez dot esango ez neurea danik aizea,
ez basabídez datorren txori-txintadea,
ez ítxasoaren apar zurízko soñekoa,
ez arrano baltzaren goitik-beerako soa.

Ez, ezín neike esan, aízea ta argia,
neureak diraník ez eguzki ta illargia,
eguna ta gaba, goiza ta arratsaldea
neureak diraník, eztere goiko izarpea.

Ez! Ez! Baña nik aizeaz, itxasoaz nabil
ta, gozoro dantzut txoriño txirripítaria,
udatiar karnabatxu abeslari txoratil.

Ameseta utsa. Baña, neurea da bídea,
gogo-biotzeko goiz-arratsen urreterria,
orokorra danarren barrutik ain da neurea!

**UDAZKENGO EGUZKIA (1989)**

Udazkenko eguzkía ostentzera doa
geldiro ta urretsu azkenengo izpíetan
ta, urrunan dantzugu itxasoaren mintzoa
illuntzeko olatu-gaínberatze bizietan.

Itzala nagosituz dator gau illunera
ta, abotsak naastutzen arí dira ixilki,
moteltasunean jauzíz amil sakonera
ortzi goían biztuaraziz ainbat izar argi.

Gaba gabekoz jantzi da soñeko mantarrez
ízipirituzko oldozkunetan arnastua,
argirik ezak damoskun berezko bildurrez.

Eguna motzago ta gaba luzeagoa,
bíztu bai maitasunez biotzetako sua,
zuzpertuz gure bízi-naí ta, gure gogo.

MUNIATEGITAR SABIN

EUSKERAZKO IZTEGIAK

Jaun-andreak:

Ona niri jarri dausten gaia: "Euskerazko Iztegiak".

Eta bertatik asteko: Zer da iztegia? Itzak, berbak erabilten doguz gauza adierazteko, geure pentsamentuak ingurukoai aitzen emoteko; itza darabil gizonak ortarako. Itza, barriz, alde batetik esan edo entzun egiten da; bestetik idatzi egiten da. Eta Umandi'k onela: "Esan eta entzuteko, itza oguzten da bere soñuaren bidez; itza idazteko, bere ikurra da bearra. Oldozteko ezta bear ez soñurik ez eta ikurrik ere."

Itz-txorta aundia da iztegia, geienez, txikiak be ezagutzen diranarren. Berbak abezeka datoz, urrenez urren; batzuk azaldu egiten dabez itzaren jatorria, esan-naiak eta abar; baste batzuk itz orren inguruak, berau agertzen dan esaldirik jatorrenak erreskadan jarten dauskuez. Azkue'k eta Lhande'k, esaterako, itz batzuen artean, andik eta emendik arturiko esaldi txanbeliñak sartzen dabez irakurlearen lagungarri.

Izkuntza guztietan daukiez iztegiak, mintzategiak. Baita guk euskaldunok be. Aundi ta txiki, argitara emonak eta emon bakoak, guztiz berrogeitik gora dira, eta lenengoa an 1562'koa. Azken urteotan ugari ta oñak agertu jakuz. Emen geienak, aiatatu beintzat, egingo doguz, onenai garrantzi geiago emonez.

1) Dictionarium Linguae Cantabrigae. 1562'an idatzia ta 1958'an Agud eta K. Mítxelena'k Donostia'n argitara emona. Egille: Nikolas Laanduchio, italiarra. Gaztelar itzak ugari darabiltzalako, uste da Gasteiz'ko euskereaz baliatu zala. Larramendi'k ez eban iztegi au begi onez ikusi; baiña gaur ez jaku arbui-agarri, amaseigarren gizaldirik ona itzak zelako aldakuntza egin daben ikusteko batez be.

2) Diccionario Tagalo-Castellano-Cántabro. Kantauriko edo euskaldun, Meltxor Oíangure Aitak osotua. Etzan argitaratu ta gaur galdua dozu.

3) Diccionario cuatrilingüe. Sara'ko Joanes Etxeberria'rena. Larramendi'k bere iztegiaren sarrreran dññoanez "bascuence, castellano, francés y latín" ziran lau izkuntzok. Larramendi'k eskuetan

erabilli eban berea osotzean. Etzan argitaratu ta galdua da. Garai artan beste bat be erabilli zanarren, ez dakigu norena zanik.

4) Diccionario trilingüe. Euskeraz, frantsesez eta latíñez; 1675'an Domingo Bidegarai Aitak laguntza eskatzen eutson Napar Gobernuari bere iztegia argitaratzeko, baiña ezezkoa emon eutson; erderaz be ipiñi eban, Nafartarrentzat egoki izango zala-ta. Iru urte geroago il zan, eta etzan argitaratu.

5) Loiola'ko artxibuan dago beste iztegi bat, 1774'rantza Jose Maria Azpitarte'k egiña.

6) Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín, alebitan, Aita Manuel Larramendi'k idatzi ta 1745'an Donostian agertua. Euskal iztegirik garrantzitsuena, egun areitarako ta ondo biribildua, dogula ao batez autortzen da. Lan aundia bene-benetan, ez bakarrik erriak erabiltzan itzak batzean, baita be itz barriak sortzerakoan be; bera asi zan arduraz, iñor baiño leenago, aparteko zeregin ortan berau izan ei zan garbizaleen buru; ezta arrigarri, berak nai izan bai eban izkuntza garrantzizkoen maillara jaso gure euskera: Etxepare ta Larramendi, ta gero Sabino Arana, ona iru giza-
seme asmo bardiñak ixetuak. Irakasletza Salamanca'n egin arren, biotza bere lurrean eukan, berau jasorik zenbait liburu bikain idatziz, Iztegi gainera, "Eziña Egiña" ta Gipuzkoa'ko "Koreografia".

7) Mugaz bestaldekoak be ez egozan lo. 1826'inguruan, Frantzia'n Tolosa'ko Ikastetxe Nagusian irakasle zan Fleury Lécuse'k euskal iztegi bat osotu eban. Etzan argitaratu ta, zoritxarrez, betiko galdua dogu. S. Pouvreau, euskal idazleak badau berea.

8) Dictionaire Basque-Frangais. Azkain'ko seme J. Martin Hiribarren (1810-1866) beronen egille. Bardoze'n arima-zain 31 urte emon ondoren, Baionako katedralean ohorezko kalonje. Olerkari lez **Euskaldunak**, poema luzea, idatzi eban, eta lexikolari lez, argitaldu barik itxi eban iztegia. Larramendi'ren itzak sarrisamar darabiltz, baita beste batzuk kasketetik urtenak be. Lhande'k asko erabilli eban iztegi au.

9) Mauritze Harriet, Haltsu'n sortua 1814'an. Fabian bere anaiari lagunduz, Ian asko burutu eban; 1854'an Madrid'en Frantsesen San Luis

Ikastetxeko buru izentatu eben 1878'rarte kargu orretan jardunik; gazteai elertia ta zientziak erakusten beti. Bere errira biurtu ta il zanean Harriet'ek lan ikaragarria itxi eban, iztegi aundi bat Azkue jaunarena baiño ederragoa diñoenez. 3.536 orrialdeko esku-idatzi, baiña ez eban bere lana argitara emon nai izan, "ez eukan oraindik, bere ustez, bear bezain orraztua ta osotua".

10) Aduenetako kapitaina zan Duvoisin'ek iztegi-arloan erre ei ebazan bere indarrak urte batzuetan; baiña gero, 1856'tik Bonaparte'k bear-tuta beste euskal lan batzuk egin bear izan ebazan, Biblia euskera jarri ta abar, eta amaitu barik geratu zan antza esku artean ekarren iztegia.

11) Diccionario Frances-Vasco, Fabre'k egiña; gora aundirik euki ez ebana, Bonaparte Printzearen aldetik batez be.

12) Dictionnaire Basque Français, 1873'an Van Eys olandarrak osotua. Paris eta Londres, 1873, 415 orrialde. Erbestetar jakintsuen artean ainbat izan ditugu euskeraz, eta euskal gaietaz batez be, ederto lan egin dabenak; orreitatik bat auxe da; onek zenbat gura lan euskal gramatika, aditz, joskera ta lexikori buruz egin euskuzan.

13) Arratia'ko semea dogu Añibarro, frantziskotan lekaidea, Areatzan jaioa 1748'an. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n ibilli zan predikari, naizta berrogeta bi urtetik, Zarautz'eko Mixiolari Kolejoan bizi. Eta Orixe'k onetzaz: "Zarautz'en badugu komentu bat Euskalerrriaren eta euskeraren aide lan polita egin diguna. Añibarro bizkaitarra, arratiarra izanik, beste euskalkiak ikasten ere alegiña egin zuena. Aita Ubillos etzan Zarautz'en iñoiz bizi izan, baiña Añibarrok lan sendoa egin zuenik ezin ukatu, komentu barruan eta komentutik atera. Zeinbat idatzi zizkigun! Iztegi eder bat oien artean, eta ortarako bere mixio-lanetan or-emen billatzen zitun itz egoki ta esaera politikak, iztegi berberaren sarreran diñoanez, komentuko egonaldietan eiotu oi zitun gero, iztegia oso ta beteagoa egin nairik". Ez eban iztegirik idatzi, baiña bai iztegi antzeko zer asko, oneik biok, adibidez: "Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra... para uso y aviso de Parrocos y Predicadores bascongados" eta "Catalog() de voces bascongadas". Orrez gaiñ, "Gramatica Bascongada". Lenengoa erdera-euskera antzeko iztegia da, ta guztiz 461 orrialde daukaz. Azkue jaunak, berea egiterakoan, auxe arakatu ta aztertu eban; balio aundikotzat jotzen dau Aita Añibarro'ren lan au. Larramendi'k berak asmautako itz asko dakazala, Añibarro'ren itzak jatorrak dira beti, erritik jasoak.

14) Beste esku-idatzi edo manuscrito bat be egon zan, antza danez, Otxandio'ko abadeak eskuratu eutsona, eta Aita Zabala'rena dozu, uste danez.

15) Diccionario Etimologico del Idioma Bascongado, 1887'n Eusebio Lopez'enean argitara emona; ale bitan, euskeraz, erderaz eta latinez. Pedro Novia Salcedo egille; 1790'n Bilbo'n jaioa eta 1865'an bertan Gure foruen aide lan errimea burutu eban, Gernika'ko batzarretan batez be; 1876'an berak batu zituan Bizkaiko erri guztietako batzarkideak, urte onetan bait eben Madrid'en moztu bizkaitarren foru-legea. Bilboko alkate izan zan, eta Kortietako Aldun eta Senadore. Etsaien aurka beti agertu zan kementsu.

16) Diccionario Banco-ESPAÑOL: Euskeratik erderara biurtzeko Itztegia. J. Frantzisko Aizkibel'ek idatzia. 1798'an Azkoitia'n jaioa, eta 1865'an Toledo'n Munarriz eritxob bere etxean. Euskaltzale beroa zan, Erromatik eta, gaztetan ibillita be, ainbat lanetan Euskalerrria goratu eban, ainbat liburu be euskerari ta euskal lurrari buruz osoturik. Asmo aundiko agertzen jaku iztegia egitean; ez itzak ordenan jarri ta itzuli bakarrik, ba-dau beste zerbait be, bitxia bera; Iztegian sartu euskun ortogafri-era barria nunbait; *c ta B* baztertu ta orrein orde z ta *k* erabilli, ta *g* be leuna *egin, ge, gi*, gerkarren gamma lez; marradun letren zale agertzen jaku: *oña, oillua, tipia*, ta ez *oina, oilua, ttipia*; azkenik, ez du h-rik nai: Labur: gaurkoentzat be ikasbide ederra dago aren Iztegiaren itzaurrean.

17) **Diccionario Vasco-Espanol-Frances, R.M.** Azkue jaunarena. Ale bitan. 1905'an argitara emona, ta gero be birritan beintzat -Martin Retana'k eta kaltzaindia - argitaratua. Iztegi ikaragarria, ez aurretikoak ez gero etorri diranak oin-diño gaintu ez dabena, Azkue'k gazte zala iru lau urtean burutu ebana. Aurreko iztegiak arakatu ondoren, onak eta zentzunezkoak ziranak artu ta etziranak albora itxiz, ainbat euskal esaera duiñez edertu ta jasa aundiko egiñez, agertu jakun, ondorengo iztegi guztien oiñarri ta eredu bikain dana. Ondorengoak guztiz txalotua, Eleizalde'tar Koldobika'k 1908'an "titandarren lana" zala esan ebantetik nunbait. Bizkaitar gizaseme benetan andia ta bikaiña dogu Azkue; berak sortu eban Euskaltzaindia, bereak ditu "Iztegiaz" gain, "Cancionero", "Morfoloia", "Euskalerrriaren Yakintza" eta konta ezin-ala gramatika lan, artikulu, ipuin, ereserki, ta abar; berak sortu ta zuzendu zitun "Euskaltzale" ta "Ibaizabal".

EUSKAL-ASTEA

18) Dictionnaire Basque-Français, Zuberotar Pierre Lhande'rena. Onek eta Azkue'k euskal iztegi barrutian artu eban bide barria euskerazko le-xiko arloan. Lhande, josulagundarra, berez izan zan lanari errime emona. Familitik euskaltzale, ez eutsan iñoiz amor emon zaletasun orri. Aspertu barik idatzi eban euskeraz eta erderaz. Lan guzti orreitatik, guretzat, Pierre Lafitte'k eta Aranart apaizak lagunduta amaitutako Iztegiak dau garrantzirik geiena. Ondo egiña ta argitaldua benetan. Ba-dauka bereizgarri bat euskal iztegi-egilleak kontuan euki bear eukena: gerkar eta doixtar iztegiak sarri dagienez, Lhande'k jatorrizko itz baten ondoan, aretatik datozan gaiñerakoak jarten ditu; esaterako, on-etik datozanak: on-aldi, -aro, -begi, -bear, -bide, -damu. Idazkera, ortografi aldetik, Euskaltzaindiak 1920-1-8'eko batzarrean ontzat emon eta beretzakotu ebana darabil oso-osorik. Ez dakar itz barririk. Argi ta garbi, apain-irudiz be do-toretua.

19) Diccionario Castellano-Vasco. Azkue asi zan dalako Iztegia antolatzen; ingurrazti edo faszi-kulu antzera atera zan, ainbat luburuxka orrelaxe. Baiña Aita Bera'k eta Lopez-Mendizabal'ek gisako bat argitaratu ebela-ta, erdi-asarraturik, bertan-bera itzi eban bere lana.

20) Diccionario "Erdera-Euzkera" eta "Euzkera-Erdera"; Aita Bera kaputxinoak "Castellano-Euzkera" eta Lopez-Mendizabal Ixaka'k "Euzkel-Erdel-Iztegia". 654 orrialde. Tolosa'ko Lopez Mendizabal-enean sarri argitaratua. 1936'ko ger-rarte guztian, jakitun eta ezjakin, askok erabillia. Nik esku artean daukadana, Aita Benito Igorre'ko seme karmeldarrak, India'n eta emen, asko erabilli ta koipeztua da, garai aretan mesede galanta danoi egiña.

21) Diccionario Enciclopédico Vasco. "Beñat Idaztiak" eritxon Argitaletxea, Bernardo Estornes Lasa buru zalarik, an 1936'an, gerra aurretxoan, iru izkuntzako—gasteleraz, euskeraetafrantsesez—sei-zortzi bat aleko Iztegia gertatzen ebillen. Asmo ori asmotan geratu zan orduan, baiña geroago os-tera be orretan asi ta orretan diardu, "Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco" tituluarekin.

22) Diccionario Vasco-Castellano. Lopez-Mendizabal'ena. Bostgarrena da nik orain esku artean darabildan argitalpena, 450 orrialdekoa. Ezta Aita Berarekin batera egindakoa bera, osorik barria baiño, eta garai baten naikoa erabillia; aitatzea me-rezi dauana.

23) Dictionnaire Basque-Français, Tournier jau-narena.

24) Dictionnaire Basque-Français, eta alde-rantziz; Fenaille Mispiratzegei'k, Minaberri an-drearen babespean egiña, ale bitan.

25) Diccionario Castellano-Vasco; aita Plazido Muxika'rena: 1897 orrialde. 1965'an argitara eka-rria. Urte luzeetako lana. Loiola'n ikasle zan gazte talde batek —Zaitegi, Lauaxeta, Ibiñagabeitia— Muxika ta abar-euskerearen alde benetan lan egi-teko xedea artu eban, eta guztiak gero, guduua zala-ta, sakabanatuak izan arren, bakotxak an naiz emen, egotaz egoan lekuan, lan guztiz jakintsua burutu eban; orrein artekoa izan zan Aita Muxika, erbestez erbeste ibillita be, eta gero Loiola'ko ba-kartegi ixillean, iztegi bikain bati gaiña artu eutsona. Gizasema gogotsuaren ekiñak bai Ian ederrak ekarten! Itz bakotxa nun erabilten daka-rrenagaitik, euskal barri batek ba'leiteke naste piz-kat aurkitzea.

26) Diccionario Vasco-Castellano. Aie bi. Le-nengoak 1998 eta bigarrenak, 2098 orrialde. Bil-bo'ko "Mensajero"ok argitaratuta. Geienik erriak eta beste iztegiak dakarrezan itzak onek be daka-zan arren, berak asmautakoak edo itz alkartzez an-tolatuak be ez dira gitxi; gerkarrak lez eratuak noski, eta ez dagoz txarto. Muxika'ren lana ikara-garria eta oso bikaiña dala autortu bear dot; etzan berau gizaseme baten lana, baiña berak bakar-bakarrak egin euskun.

27) Diccionario Castellano-Vasco y Vasco-Cas-tellano, Aita Arbelaitz kaputxinoarena. Lenengo zatika "Euzkadi"-n atera eban eta gero, oraindik orain, Bilbaoko Aurrezki Kutxa Munizipalak. Az-kue jaunaren Iztegi nagusitik ateratakoak dira itzik geienak, Bizkaiko ta Gipuzkoako izkelgiai dago-kiezanak batez be.

28) Iztegi. Erdera-euskera: Castellano-Vasco. Egille: Txomin Jakakortajarena apaiza. Buenos Aires'ko `akin"-ek argitaratua, 1964'an. 323 orrialde.

29) Iztegi. Euskera-Erdera: Vasco-Castellano. Egille: Txomin Jakakortaj arena. Buenos Aires'ko "Ekin"-ek argitaldua, 1986'an. 418 orrialde. Euske-raz eta itzaurrean, 25 orrialdetan, ainbat oar eta ba-rrri eta experientzi damoskuz, benetan jakinga-rriak, irakurri ta ausnartzea merezi dabenak. Oar bat auxe to gaurko gazte askorentzat oargarri egi-egiaz: "Auzoko izkuntzakin, Euskera ez kutsatu; bide oni esker, lekutako garai aietatik gaurdanaiño bizirik eldu nai izan baitzaigu, kutsatzen utzi ba'-lute, onezkero Euskera erabat izkutaturik bait ge-neukagun". Beraz, izan gaitezkan esker onekoak.

30) Diccionario "Ikas". Euskera-Castellano, Castellano-Euskera. 238 orrialde. Academia "Montiano", Jose Antonio Montiano ta Jose Ramon Urkixo'ren artean eratua. 1972'an.

32) **Diccionario Euskerico y de Nombres Vascos.** Jaime Kerexeta'k osotua eta Bizkai Aurrezki Kutxak argitarara emona, 144 orrialde.

33) **Hiztegi Tipia,** Gabriel Aresti'k antolatua ta 1973'an argitaldua.

34) **Euskal Hiztegi Modernoa.** Euskara-espainiera, espainiera-euskara. 1976'an argitaratua. Xabier Kintana'k beste batzuek egiña. 731 orrialde. Ikastoletan batez be asko erabilia. Ba-ditu itz eta esaera batzuk adiera bitxian artu ta erabiliak. Alan eta guzti be, iztegi onen moldatzailean erizpide zabala erabili dabela dirudi; onela dñoe beintzat "Hiztegi hau egitean moldatzaileak ukan dugun helburua, lehenengo eta behin, hauxe izan da, gure hizkuntzaren aukera egin duten guztiei kultur tresna bat eskaintzea. Guretzat euskara euskal bizimodu osoaren adierazpena izateko bada, era guztietako hitzak behar ditu zaharrak eta berriak, basarri eta marinel kutsukoak, kalekoak eta unibertsitatekoak elizakoak zein lizunkeriazkoak, pertsona dotore eta ijitoenak".

35) **Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca.** Bederatzi ale aundiak, eta eurotatik lenengoa, 432 orrialdekoa, J.M. Retana'ren "La Gran Enciclopedia Vasca"-k 1976'an atera eban, eta igaz "Amaya" argitaletxeak amaitu eban 9 liburuen argitaratzea. Zabalkunde orriak onela: "2.000 urte igaro behar izan ditugu Euskadi-ren historia goitik behera aldatuko duen Hiztegia gure esku izateko, zeren eta zer litzateke euskara Hiztegi hau ez balitz? Milaka eta milaka ordu eman dira Europa osoan egin den obrarik garrantzitsuena argitaratzeko; gainera, lan hori maitasunaren izenean egin da, munduan den hizkuntzarik ederrena, "Euskara", maite dugulako". Berau lortzeko lan egin dabenak, oneik izan dira batez be: Manu Sota, Pierre Lafitte, Lino Akesolo, Jose Lasa, Justo M. Mokoroa, Justo Garate, Intza'ko Damaso Aita, Jaime Kerexeta, Gabriel Manterola, beste batzuk lagunkide izanik.

Berau osotu, amaitu ta iragarri zanean, jai ospetsua egin zan Bilboko Erzilla otelean. Euskal erriak ondo artu eban, eta Eusko Jarlaritzak, eta idazleak; oneik aurrezear goratarre bizi-biziak ondu zituen, alkarren leian. Olako 41'raiño dakazan zabalkunde orri batetik artuta:

— **Tomas Uribebarria,** Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Diputatua. "Erraldoien lana. Honen

gisako ahalegina ikusita, txapela kendu eta aide batera utzi behar dira kritikak. Azken dinosaurioak desagertzeaz egongo dira baina oraindik zutik dirautenak, eta Aita Lino horietako bat dugu, lan isil eta sakona ari dira burutzen. Hiztegi hau premiazkoa da egun eta aurrerantzean ere izango dugu horren beharrik, baina ez du oztoporik jarriko Orotarikoaren bidean. Retana-ren hiztegia aurrepauso nabarmena da eta lan ederra egiteko eukera ematen du bai orain baita gero ere".

— **Arana Martija.** "Lan honek garrantzi handia du zeren eta, Larramendik duela 250 urte egin zue netik hasiz, orain arte egin diren hiztegietatik Azkuerenak aurrepauso izugarria ekarri zuen. Ezin ditugu ahanzi noski, Plazido Mujikak eta beste batzuk egindakoak, baina ene ustez, Manu sotak, Pierre Lafittek eta beste ainbestek hasitakoa eta Lino Akesolok bukatutakoa oso lan garrantzitsua izan da gure lexikografirako. Une honetan ez dago hau baino Hiztegi interesgarriagorik, euskararen ondarearen berri ematen digun korpus izugarria biltzen bait du."

— **Alfonso Irigoien.** "Orain arte izan dugun Hiztegirik osoena. Baliteke aurrerantzean gehiago egitea, baina atera berri den honetan Manu Sotak, Kandido Izagirrek, Toribio Etxebarriak bildutakoa eta Lhande eta Azkuereren Hiztegietan jasotako guztia agertzen da. Horretaz gain, "Herria" aldizkarian oinarriturik, esaldi baten barruko hitzen bilketa ematen digu hiztegi honek. Ekarpenean interesgarria nire ustez, gaurdaino Hiztegiak biltzen ez zizuten euskal literatura desberdinetako hitzen berri ematen baitigu. Gero Orotariko egindakoan hitz gehiago azalduko dira eta orain somatzen dugun hutsunea osatu eta ez dugu arazorik izango testuak ulertzeko".

— **Gotzon Garate.** Lan ederra dela uste dut. Beti esan izan dut hitz soilak gutxi balio dutela esaldia osatzen ez badu. Hiztegi honek badu bere aide ona; ez da hitzen hiztegia esan-moldeena baizik eta horrek balio handia du; batez ere idazleentzat. Lan txalogarria dugu. Gauza jakina da Mitxelenak hasi eta Ibon Sarasola egiten ari den hiztegi bat ere badela, baina kaleratu bitartean —baliteke horretarako zenbait urte behar izatea— eskuarteko hau guztiz beharrezkoa dugu, irakaskuntzan, ikastoletan, euskaltegietan, irratian eta telebistan ari direnek erabiliko dute zalantzarik gabe".

36) Emen ba-da beste iztegi bat, euskeraz eta erderaz, Sarasola aspalditxo dala egiten asi ta bertanbera itxia; orain beste bategaz diardu lanean, K. Mitxelena'k be antxiña baten asi ta il ondoren

EUSKAL-ASTEA

arek itxia jarraitzen dauana. Oindiño ez da nire eskuetara eldu, eta ezin daiket ezer esan; baiña Azkue zanarena izan bear dau, Mitxelena'ren asmoa zanez, ugaritu, beteagotu ta gaurkotua.

37) Diccionario General Técnico. Ale bi, I. Castellano-Euskara eta II. Euskara-Gaztelera. Egille: Luis Mari Mujika. Lenengoak 599 orrialde eta bigarrenak 618. Euskara batua. Ediciones Vascas argitaletxeak 1977'an argitara emonak. Biak dakarrez itzaurre luzeak, zeaztasun askoz gaiñezka; orrez gaiñ, lenengoan datoz eraskin gien, gramatika saillak, esaerak, jeografi-izenak, azken urteotan euskera galdu dan ibar eta erriak, eta gaur zenbatek dagian euskeraz; eta bigarrenak eusko-izendegia, atsoitzak, gizon-izenak eta emakume-izenak.

38) Euskarako Hiztegia. Beiñola, aspaldi ez dala, euskaldun talde jator bat alkartu zan, eskola ta ikastoletako premiña ikusiz, iztegi maillan lan egin nairik; oneik ziran: Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra, Txomin Solabarrieta, Rikardo Badiola. Juan Luis Goikoetxea ta Gotzon Aurrekoetxea. Eta lan ederra egiña dabe onezkero be, "Adorez" izenburuaren mende iru liburu beiñik-bein argitaldu dabez: 1. **Sinominoen Histegia;** 2. **Euskarako Hiztegia** eta 3. **Sinonimo eta anonimoen Hiztegia.** Arnas aundiko lana egi-egiaz. Orain arte euskeraz egin eztan lana: euskera utsezko iztegiak dira. Gozoz osotu eta irarriak.

Bego emen sei lankideok itzaurrean diñoskuena: "Beraz,-zertarako hiztegi berririk? Aurreko hiztegi-gintzaren segida besterik ez izatekotan, haren ildo-tik ezer bereizirik eskaini gabe aritzekotan, erdi alferrikotzat jo zitekeen. Baina ez! Era bateko nahiz besteko hiztegien gorakada gertatu arren, baten hor hutsune larririk ere: euskaldunontzat euskaraz egindako hiztegiak eza, hau da, auzoko erdaretan hain oparo ageri direnen antzeko azalpen hiztegi baten gabezia nabaria. Beharizan horrek eraginda, buru eta bihotz ekin genion lanari. Sei lankideren etsi gabeko ekintzaren emaitza duzu liburu hau.

Ibilian ibilian ikasi ere zerbait ikasten da eta, gu ongi ohartu gara honelako lanak egoki burutzeko baldintza on batzo behar direla. Honelako arnasa luzeko lanak aberats eta jantziak aterako badira, lan horri zeharo emanik, profesionaltasunez eta oraingo tresneriaz baliatuz izan behar duela. Euskara, egungo gizarte berri, aldakor, aurreratu honetan leku egin nahirik, hartara moldatu nahirik ari denean, urrats bat eman nahi dugu aurrerantz,

euskaldunok auzoko erdaretara jo beharrik izan gabe, geureaz balia gaitezen. Hiztegi hau neurri jakinetatik abiatzen da eta onenbesteko tamainuan erantzungo dizu. Hala ere 13.000 sarrera hitzetatik gora izanik, bizitza arrunteko euskaldunei oparo erantzuteko bide izango da ziur aski".

Iztegi onek badau beste zerbait be naikoa bitxia. Beronen aurbideak onela: Euskera—Gaztelania-Frantsesa—Ingelesa; Gaztelania Euskara; Frantsesa Euskara; Ingelesa Euskara. Interesgarria benetan inguruko izkuntza nagusiak be, azal samarretik beintzat, ikasi al izateko.

Ba-daukaguz oraindiño beste iztegi txikiago edo aundiago batzuk, "Batasunaren Kutxa", Uzei'k zenbait gairi buruz antolatuak eta abar. Labur, euskaldunok be iztegi ez gabiltz txarto. Alderdi ortatik, beraz, Etxepare'k beiñola iñoana esan gengike:

Heuskara, ialgi adi kanpora,

Heuskara, ialgi adi plazara".

39) Azkenengo lekuan izanik be, ezin dot aitatu barik itxi esku artean daukadan beste au: "Agintaritza-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma" (1985). Erderaz: "Vocabulario de los Boletines Oficiales". Zentzun errimez burututako lanaren aurrean gagozala, uste dot. Talde bat da Hitz-Bilduma onen egille. Iztegi gintzan jardun nai leuken beste edozeiñek be kontuan artu daizan, ona iztegi onen egilleak onartu dituen legeak:

a) Hizkuntzak berebaitan dituen bidez baliatzea.

b) Hizkuntzak lehendik dituen hitzen baten adierazte-eramua zabalagotzea.

c) Hitza maileguz hartzea.

Taldekoak edo Hiztegi onen eratzaileak "lehenengo bidez baliatu dira, adibidez, "regimen" adierazteko *˘jaurri bidejaurpide*" hitza erabiliz; "artículo" eta "sector" emateko "atal" eta "alor" ez baliatze kotan, berriz, bigarren bidea aukeratu da.

Hitzak maileguz (prestatuz) hartzekoan ere ISO-ren (Nazio-arteko Araukidekuntza Erakundea) horretzazko arau bereziei atxiki zaizkie. Erakunde horrek dionez, hitzak maileguz hartzerakoan sailkakoei eta hizkuntza bizitatikakoei ahal dela ihes egin behar zaie, horrek norbere hizkuntzaren alor bateango bizi-indarra ahuldu egin bait-dezake.

Horren arauera, LEGE hitzetik, adibiez, "legal, ilegal, legalizar" arbuaiatuz, eta legezko, legezkontrako, legezkotu" hobesten dira. Orobat, "ekonomia"tiketa "politika"tik ez dira "ekonomiko", "politiko"ateratzen, "ekonomiazko"; "politikazko"bai-zik".

Labur: 669 orrialdeko Hitz-Bilduma baliotsua. Itzak euskeraz adierazorik dator, esan-naia erderaz be emonik.

— Iztegi zelaian bada beste auzi bat, naiko garrantzizkoa, eta iztegi guztioen egilleak, banaka batzuk, eta oneik be, ozt-oztan ikutu dautsoena. "Itz barriak". Eta idazle askok, gazteak batez be, auzi ontara joten dabe, idazten asi orduko. Ba al dakie berau zer dan? Ba'leiteke ezetz. Baiña urliak, eurentzat maisu danak esan dauala-ta, orixe eurak be, maisuak esana dalako, or doa beste barik. Zelako kaltea dakartson onek euskereari!

"Ori garbi-zale da" esan oi dozu, erderazko itz asko —gaur "batuan" lez bear bada?— erabilten ez ba'dira. Idazleak, baiña, zerbait danak, alik eta ederto eta txukunen eio bear ditu bere idazlanak. Izkuntza "andra" eder-ederra dogu eta guk, idazleok, ez daigun soiñeko zarpaillez jantzi, dotorez baiño; orrela egin eben Ingalaterra'n, Italia'n, Alemania'n erresuma orreitako idazlerik aundienak. Gure euskerak griegoak eta alemanak beste erreztasun dau itz barriak errez eta egoki moldatzeko. Egoki danean eta ortarako sen berezia dauanak, zergaitik ez jo Ian ortara be?

Onetan luzatzeko asmo barik, nire eritziz politikan lez jokatu oi da onetan be: nora eguzkia, ara zapia. Zentzun gitxiko jokoa dala deritxat ori.

AITA ONAINDIA

1989 (Bizkaiko Euskeraren Aste barruan, azillaren 21'an egindako itzaldia)



Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «EUSKERAZALEAK» en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2º
Teléfono 423 53 22
BILBAO -1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de

Colón de Larreátegui, 14 - 2º
Teléfono 423 53 22
BILBAO -1

Nora Zoaz	600	laurleko
Giza Soiña	600	»
Iniciación al Euskera	600	»
Irakurgai errezpolitak I.....	100	»
(Zenbat Urte)		
Irakurgai errezpolitak II.....	200	»
(David Copperfield)		
Aurtxoa II.....	100	»
Eginkizunak I.....	100	»
Eginkizunak II.....	100	»
Eginkizunak III.....	100	»
Euskal Irakasbide laburra.....	600	»
(Gramatika X. Peña)		
Diccionario Ikas.....	700	»
Ipuñak.....	700	»
Ipuñak	800	»

AITA ARRUPE JOSULAGUNA



Esan dagigun argi ta garbi gure gizaldiko norkirik lilluragarrietarikoa dala Aita Arrupe.

Eta ez bakarrik esan eta egin ebanagaitik, baita bere gizontasun, bere izakera eta bere karismagaitik be. Eta ez gitxiago arerioen izkillua kendu eta ez-titzeko gaitasun eta trebetasunagaitik.

Gauzak aurrez-aurre esaten auzartzen ziranak naiz aspikeriz eta maltzurrez ibiltzen ziranak, beti geratzen ziran bare Arrupe'ren giza-mailla ta gogoia ezagutzen ebezenean, eta ori orrelan izaten zan euren asmoak eta azterbideak oso ezbardinak izan arren be.

Arrupe'ren ondorena sinismena ta zuzentasuna diran bikotean agertzen da labur-labur. Josulagunak XXXII euren batzar Nagusian batuta, barrero mugatu eta erabagi eben euren jatorrizko karisma sinis-

menaren laguntza eta zuzentasunaren goratzea ziralara. Orretan Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren norabidea artu eben: Lekaideak euren asmoak eguneratu egin bear ebezala eskatzen eban.

Auxe berau izan zan Arrupe'tar Pedro Aitaren elburua ta egitasmoa. Berba onein barruan Arrupe'ren egiteak erabilten eben indarra dago.

Lenengo esperientzi edo oarkizun kezkarria txiroen munduan osakai-ikasle izan zanekoa da. An ezagutu ebazan uribazterreko zoritxar izugarriak. Geroago beste batzuekin Ipar-Amerikatarren guda ikusi eban eta azkenez, Hirosima'ko atomo-lerkaia zala-ta ikusi ebana mundu guztian iragarten ibilli zan.

Oarkizun oneikaz argi ikusi eban, Jaungoikoa beti egoala babesbakoen alde eta oneik aukeratzen ebazala.

Arrupe Munduko txiro guztien, guda zoroaren kaltedunen eta Ego-Ameriketako ez-eukien, droga-zaleen eta igeslarien ordezkari ta buruzagi izan zan. Eta ori ez, ain zuzen be, giza-maitasunagaitik, bere sinismenaren premiñazko eskakizuna zala uste ebalako baiño.

Askok Arrupe'ren gauzak gitxitat daukez, edo ez dabez entzun gura izaten. Au edesti zarra da, gizona baizen zarra.

Igarleak neke-sortzaille izaten dira, gizonaren zuzentasuna eskatzeko, eta eragozpenik ez ba'dago arein esaerak aurrera doaz.

Arrupe'k ez ebazala araupetzen Lagundiko lekaide guztiak, esaten eben, ez daukala gauzak neurtzeko zentzunik, bere pentsaerak Eleiza osoa orbanduten dabela... eta Arrupe ain entzutetsua bada-epadako gizon lez izten dabe. Ori agertzeko esaldí mingarriago bat be esan da: Euskaldun batek irasi eban Jesus'en Lagundia eta beste euskaldun batek apurtu eta ezereztu dau". Olako esaldiak zabaldu egi-ten dira eta indarra artu.

Arrupe'k bere ardurea Aita Santuaren eskuetan itzi ebanean, onek ez eutson onartu izte ori. Gero bai, tronbosis gaisora sartu zanean, Lagundíari Aita Santuaren Ordezkaritza ezarri eutson.

Arrupe gizon aundiari buruz, edestiak esango dau azkenengo berbea.

Gure euskaldun ospetsu au Erroma'ko gaisotegi bateko gelan daukagu, Jaunaren deiari itxaroten.

LETONA'k

BURDIN KURUTZ

(JOSE SAGARNA ABADĒA'ri)

Ude ta neguetan
eguzki eta ekaitz
ditut inguruan;
arerio ta lagun
pozez ta odoletan
daukadaz goguan.

Burdin Kurutz maitea
egunaren urratza
ditxarozu goizez;
noz-beinka datoz pozez
noz-naitan negar miñez
tximistaren garrez.

Bakea maite dozu,
beti, zerura bagira,
eta baserrira,
zure biotz urrea
egizko almenetan
makurtzen argira.

Aldien aldietan
tinko jarraitzen dozu
zure asmoetan,
notin bat dirudizu
ondasuna eskatzen
zure otoietan.

BAKARRIK

Bakardadean zagoz
lorazko mendi gaiña,
ederraren kantuz,
zure Egille Altsuak
berarentzat nai zaitu
biotz ori urtuz.

Ain zara maitegarri
urre-laiñotxupear
itxaso aldetik,
neskatil garbiena
dirudizu ortzaren
dizdiz zoraturik.

Bakearen ederraz
ezilkorturik zagoz
gozo samurretan;
amaren biotz muiña
errietan daukazu
larros usaiñetan.

Baserritar nekeak
egitan, maite dozuz
goizetik gabera;
zure bedeinkapena
gogoz, damotsazue
argitik argira.

BASERRI GIROA

Umeak arizpean
zure gogora dabiltz
jolas gozoetan;

baiña urrezko poza
aitittek sentitzen dau
beren errietan.

Bei gorriak daukazuz
izerdiz nekatuta
itz egin ezinik;
txoriak zugatzean
arat onat, kantari
lorrotzak pozturik.

Gau zoragarri artan
amets bat eldu jatan
izarren artezik;
apaizaren odolak
gorrituko ebala
zelaia errotik.

ETSIAIAK

Bakearen etsaiak
ausi eben aizia
burdiñaren otsez;
lur guztia dardaraz
ta odola ibaiez
ixuri zan lurrez.

Amaren ots larrira
euzko gudarostea
zeunkan aurraldean;
ariztegi eder bat
zirudien mutillak
mendi tontorrean.

Burdin-Kurutz maitea,
guda ikusi zendun
zure errietan;
semerik oberenak
oinik oin zaindu eben
ama lerrenetan.

Euzkadiren etsaiak
abadea dakarre
begiak estalduta;
iriz, barrez, burlaz,
euren gaiztakeria
ezin asetuta.

SAGARNA

Sagarna Jose, leial,
egia esan dozu
zeure apaizgoan;
zergaitik zaroaze
ezpat burdin artera
taiu latz orretan...?

Mandiola goikoa,
zu, zara testigu
gaiztakeri ontan;

txarri-kortan daukazu
Kristoren ordezkoa
egun bi ordutan.

Irugarren egunean
epailari gogorak
asarrez biotza,
gogoz izenpetzen dau
bildots errugabearen
odol eriotza.

Itz bat entzun zan gero
apaizaren agotik...
"errugabea naz,
nire epailaria
desgraziaz ilgo da"
zoritxar izenaz.

ZIÑALDARI

Burdin-Kurutz mendia,
eriotz ziñaldari
zaitut ordu ontan;
burdin izkillu otsa
miñez entzun zenduan
Joseren zaiñetan.

Gaizkina osotu zan
ta zelaia odola
lotsaz artu eban;
lurra, ixilik, dago
negar egin ezinik
samiñen artean.

Gaba, illun, egoan
eskutu ixillean
oben ilkorragaz;
lotsaz dator eguna,
ai, ondo ba-zenkie
zer datorren itzaz!!!

Goizez, argi sorreran
Mandiolan sartu da
kañoiaren otsa;
Jose epailaria
anka biak kenduta
lur gaiñean datza.

Ai, miñen nagarra!
atxak urratu bear
uluaren otsak;
itzaren deadarra
Mandiolan bete zan
ikaratzulurrak.

Burdin-Kurutz mindua,
zuk entzun zendun itza
auzoko etxean;
burdiñak bete eban
Mandiola goikoan
negarren artean.

PAULIN

ELEIZ-BURUAK (V)

(XERARKIA)

GOIRIA

Kristok Berak jarri eban Eleizan nagusitza-xerarkia. Ezbardintasuna elburuan eta ezbardintasuna almen-eskubideetan. Onela egin eban Kristok apostoluakaz eta euren laguntzalleakaz, orobat erriagaz. Lenengo Eleizetan agiri da nagusitza au ta geroago diakonadua agertzen da. Inazio Antiokiakoak argi jartzen dau ezbardintasun au: goitzañak, apaizak eta diakonoak. Nagusitza-ezbardintasun au asieratik egoan. Eleizak beti zaindu izan dau ezbardintasun au. Gaur egun be onelaxe da.

Eta zer esan gura ete dau Eleiz-nagusitza-xerarkiak? Era bitara gogoratu bear da: mailla berezietan dagozanen almenaren aldetik eta mailla beeragoetan egonda almen au daukenen aldetik.

Paulo doneak azaltzen dau au iñork baiño argiago, Mork baiño zeatzago.

Ona bere itzak: "Soin baten atalak asko dira ta ez dabe guztiak egite berbera. Orrela bada, askotsuok Kristorengan soin bat gara; bata beste-teari buruz, ostera atalak." (Erromatarrei, 12-4).
* * *

Bera. soñaren Buru da, Eleizarena alegia. (Kolosakoai, 1-18).

Alakoa, burua dan Aregandik askatuta dabil; eta burutik gorputz osoa, korapillo ta lokarriakaz janaritu ta lotuta, jainkozko adorez azten da." (Kolosotarra, 2-19).

Eta Berberak jarri dauz batzuk apostolu, beste batzuk igarle; batzuk Barri Onaren zabalzaille; beste batzuk artzain-zaintzaille ta irakasle, zintzoen obekuntza-lanerako, Kristoren gorputza atontzeko. (Efesotarra, 4-13).

Graziak barriz askotarikoak dira, baiña Espiritu Santua bat bera. Askotariko egikizunak dira, baiña Jaungoiko berbera da, guztietan dana dalgiana." (Kor. 1,12-4-6).
* * *

Eleiz-Batzarrak be gauza bera irakatsi izan dabe. Ona Trentokoak diñoana: "Norbaitek ba'

diño Eleiz katolikoan ez dala nagusitza-xerarik eta Jainkoak Berak gotzai, apaiz eta ministruen bidez egin dauan nagusitza-xerarkirik, birao alakoari."

Eta mezatan esaten dan otoitz au: "Eleiz-atal-kide guztia santutu ta zuzentzen dozun Jaungoiko altsu, betikoa: entzun egizuz eleiz-nagusitza mailla guztikoen alde dagitzuguzan gure eskari apalak, zure grazi-laguntzaz zintzoki otseindu zagiezan.

Aita Santu ta apaiz oro jainkotasunean iduki egizuz, arr.en, entzun eiguzu. (lit. sanc.). Zeruan Serapiñak eta Kerubiñak eta beste aingeru-talde guztiak Jainko Jaun bakarraren menpean dagozan lez, emen lurrean be primaduak, patriarkak, arzobispoak, obispoak eta apaizak eta abateak eta beste eleiz-mailla guztiak Aita Santuaren menpean dagoz (Ber.).

Eleiz-nagusitza —obispoak, apaizak eta diakonoak— zeruko aingeruen antzeko begitanduten jat." (Alexandriako Klemente).

Obispoen esanean bizi Jesukristo Aitarenean lez; apaizen izenean bizi apostoluak diran aldetik eta diakono-ministruen esanean bizi Jaungoikoak jarriak dira-ta (Antiokiako Inazio doneak).

Kristau erriak egiteko arlo bat baiño ez da au, Jesukristok bere Aitagandik artu ebana bera, apostoluak emon eutsena, apostoluak obispoai emon eutsena ta obispoak ondorengoai damotsena. Arlo bakar au dau ta kristauen premiñak gogoan eukita gizaldiz-gizaldi iraun dau alde orotan zabalduz. (La Lucerna).

Eta azkenez eleiz-nagusitza-xerarki au asieratik dala ikusteko: 46 apaiz, 7 diakono, ta 52 exorzista, irakurle ta ostiario egozan 250'grrren urtean.

Esandakoak naiko Kristoren Eleizan nagusitza-xerarkia beti izan dala jakiteko.

"AUTODETERMINAZIOA" (I)

Ez yaku nolanaiko iskanbilla sortu, Euzkadi'ko Alderdi Abertzaleek —eta abertzale-tasun-itxuraz jantzirik agertzen yakuzan Alderdiak—, Euzkadi'k bere askatasun osoa lortzeko daun eskubide sagaratua, zalantzarik gabe aldarrikatu ta babestuko dabela jakinarazi dabelako!

Nik iru ataletan gura neuke gai ortaz idatzi:

Lenego atala: Autodeterminazio edo politikazko biziera bereratzeko edozein Errik daun eskubidea.

Bigarren atala: Españi'tik eta espāñizaleengandik datorkigun erantzunak zer arrazoi izan daiketan.

Irugarren atala: Euzkadi'n gaur-egun bereraketa edo auto determinazio ori eztabailetzen astearen egokitasuna.

Arazo au —autodeterminazioaren arazoa—, garrantzi aundiko auzia dala, ez dausku iñork ukatuko. Ikusi besterik ez da, Euzkadi'n eta Espāñi'n politika-buruzagien gan izan daun arrakasta.

Frantzi'tik, ez yaku ezer berririk iritxi. Baiñan pentsa daikezu, irakurle, Frantzi'ren erantzuna Espāñi'ren erantzuna bera izango dala; alde batetik, Borboiak Espāñi'ra sartu ziran ezkerre Espāñi'ren jakintza guztia —politika jakintza bereiziki—, Frantziarra dalako, Frantzi'tik etorria; eta beste aldetik, Frantzi izan zalako "erdirakeri" edo "zentsalismoaren" asmatzaillea.

Badugu alare zerbait kezkarri: Autodeterminazioaren auzi onek erriagan ez dau oiartzunik izan. Otz, nagi, ardurage, gelditu

yaku Euzkadi'n erriko jendea. Ta oso siñale makurra dala iduritzen jat gure erritarren axolagabekerizko jardunkera motel ori.

Politikalariek, bai. "Ezkerretik" eta "eskubitik" eraso dauskue politikolari espāñiarrek..., eta eusko-politikolari espāñizaleek.

Ez da arritzeko gauza. Gu, abertzale sa-bindarrok ez bait gara ez "eskumako" ez "ezkerreko". Gu, soilki, euzko-abertzaleak bait gara.

Euzkadi'ren zertasuna eta nortasuna zindo gorde nai izatea "eskubitar" izatea ba'da, "eskubitarrak" gara gu. Eta Euskadi'rentzat eta Euzkadi'ko jende guztiarentzat era guztietako ontasuna gura izatea eta ontasun orren alde Ian egitea "ezkertiar" izatea baldin ba'da, gu, "ezkertarrak" gera.

Erri batentzat, ontasun osoaren oiñarria, Erri ortako errikideek beren eskubideak iareki (libreki) erabili aal izatea dala, mota guztietako "etika" edo "zuzentasun-iztiek" ao batez aitortzen dabe.

Orra ba: eskubide oietako bat, politikaren arloan garrantzitsuena, auto determinaziorako eskubidea dogu! Ori erakusten dau beintzat Etika kristauak. Orixe dogu Elizaren dotriña, ONU edo Nazio Alkartuen Erakundeak ontzat arturik daukana, 1970'gn urtean onartu ebana.

Ona, iru punttutan, dotrin orren mamia:

1. Erri bat —edozein Erri—, bere nortasuna zaintzera, gordetzera, eta bizkortzera, bearturik dago. Ori egitea edo ez egitea, ez dago Erri ortako errikideen eskuetan. Ori egitera, Erriko errikideek, *bearturik dagoz*, eta zuzentasuna "era larrian urratzen dau"

orren kontra doan guztiak: "graviter laedit". Argi mintzatzen yaku gai ortaz, " Pacem in Terris" entziklika.

2.^a Erri batek ez dau "askea", "iarea", "independientea" izateko bearkizunik. Beste Erri batekin alkaturik bizi daiteke. Errikideek aukeratu bear dabe alkartze ori noekin eta zer baldintzetan egin. Baiñan, beti ere, ziur egon bear dabe, alkartze ortan beren Erriak ez daula bere nortasunik galduko edo gutxiagotuko. Erriaren nortasuna gordetzera bearturik bait dagoz!

3.^a Erri bat beste batekin alkaturik ba'dago, ez dau alkarte ortan jarraitzeko bearkizunik. Alkatasun ori ausita beste batekin alkartu daiteke, berak ala nai ba'dau. Edo osooan iarea, "independientea" biurtu daiteke, bertako errikideek askatasun osoa gura ba'dabe. Ori, osooan, errikideen eskuetan dago.

Orixe besterik ez da "autodeterminazio" edo "ber-eraketa" esaten yakon ori Gauza argia; errez ulertu daitekeana:

Gizakume batek badau bere bizi-era gura daun bezala, iareki, eratzeko eskubidea.

Baita Erri batek ere; Erri bat gizakume batzuen alkartea besterik ez bait da: odol bera, edo beintzat kultur bera, eta edesti bera, daben gizakumeen alkartea.

Eskubide ori, ordea, gizakume bati, beregandik datorkio; ez kanpotik, ez beste ezer edo beste iñorengandik.

Berdin, Erri bati: Eskubide ori beregandik datorkio. Ez dautso iñork emoten. Berea dau! Eta izadi-legetik datorkiolako, Jaungoikoak ber-berak emana dau!

Eskubide ori nola erabilli erabakitzeko eskubidea badau. Baiña eskubide orri ez daikeo ukorik egin. Ortarako eskubiderik ez dau. Alderantziz, eskubide ura zintzo gordetzera

bearturik dago. "Oben astuna" egingo leuke bestela zuzenbidearen aurka: "graviter laedit".

Gure etsaiek —españiarrek—, ori ez dute aitortu nai; baiñan ori badakite. Orregaitik asarretu dira asarretu diran bezala, euskotarrok gure eskubide ori munduaren aurrean argi ipiñi nai dogula jakiñarazi dogunean.

Eten gabe ari dira, "autodeterminazio" orren aurka, izparringietan, irratietan, eta, batez ere irratikuska edo telebistan, ortarako zirikurik txikienaz ere baliatuz. Idazlan eta itzaldi luzeak baiño geiago, irriparrez, bezala aizera botatako esaldi laburrak darabilzkite "autodeterminazio" ori, txoro batzuen txepelkeri parregarri bat besterik ez dala, entzuleei sinistarazteko. Lotsagarria une ontan Españi'ren jardunkera! Eta arriskugarria Euzkadi'rentzat, gure Erriko jendea ez bait dago askatasunari-buruzko auzia era zuzenean ulertzeko prestatua!

Orixe izan bear, eban izan ere, diktatura jausi zan egun beretik lenengo eginkizun larria gure buruzagi guztientzat: Euskotarren artean askatasunerako zaletasuna piztu ta bizkortzea. Askatasunaganako zaletasuna..., eta euskeraganako maitasuna!

Ori eben lenen-lenengolana! Estatutoa lortzea baiño leenagokoa eta milla aldiz garrizitsuagoa.

Baiñan ez dabe orrelakorik egin. Alderantziz, estatuto bat lortzearekin lotan bezala gelditu dira, itxuraz; eta euskera sendotzen eten gabe saiatzeaz aztuta, euskera iltzera datorkigun "el batua" ontzat-artzearekin naikoa egin dabela iduritu yake!

Eta okerrena dogun gauza...; ez dabela, oben astun ortaz, oraindik beintzat, damurik erakusten!!

LATIEGI'tar BIXENTE

ELEIZEA

De la Pira. Giorgio, Florenzia'ko "Alkate Gorria", aldaretara erama izango da eta orrekin batera, gerra-ondoren, Italia'ko Lendakari izandako De Gasperi jauna. Orra bi Santu berri, biak politikoak. Urte askotan lan egin zuten Demokrasi Kristaua izena duen alderdian, De Sturzo apaizak eratua eta martxan ipiñia.

Ines Ausan lekaiame irundarrari, Aitasantuak eta bere inguruko Kardenal, Gotzai eta Monsignoriek, omenaldi egin diote Meza eder batekin eta "Pro Ecclesia eta Pontifice" deitzen domiña emanez. "Vaticano'ko Monsignorien Ama" deitzen diote emakume euskaldun argi, maratz eta santu oneri. Bai ba, berak zuzentzen omen du "Santa Marta'ren Etxea", oien guztien bizi-lekua. 76 urte beteak ditu mojatxo onek, Bejondeiola gure agurra eta "zorionak"!

ANES



*FIFA'ko eta 1990'en Munduko Futbol
Leiaketaren Zuzendariekin batera Mundu
Guztiko Futbol Federazioek Mundialetako Futbol
Leiaketaren baloia eskeiñi zioten. Aitasantuak
ordez auxe eskatu zien: Alegintzeko Kirolak
giza-birtuteen eskola izan ditezten eta Munduko
Leiaketa, berriz, nazio-arteko alkar-ulertze eta
pakezko arremanetarako.*

Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA